

UGTk osasun sistema nazionalaren zatiketa dakarren akordioaz ohartarazi du

Sindikatuak ezkutuko Estatutu Medikoarekin atzera egiteko exijitu du, eta ziurtatu du Mahai Sektorialetik altxatuko dela Osakidetzan lanbide arteko desberdintasuna ezartzen bada

2026ko uztailaren 18an

UGT Zerbitzu Publikoetatik haserre erantzun diote Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak datorren asteleheneko Mahai Sektorialeko gai-zerrendan akordio-proposamen bat sartzeko asmoari. Horrek, funtsean, ezkutuko Estatutu Mediko bat dakar osasun-sistema publikoko langile fakultatiboentzat. Jasone Perez UGT Euskadiko Osasungintzako arduradunaren arabera, akordio hori "sekretupean" gauzatu da, Mahai Sektoriala alde batera utzita, "Osakidetzako langileen lan-baldintzak negoziatzeko organo legitimo bakarra saihestuz". Akordioak, de facto, egun ezagutzen dugun "Euskal Osasun Sistema zatitzea" dakarrela, salatu du.

Sindikatuak ohartarazi duenez, hitzarmenak "lanbide arteko ekitate eza bidegabea sortzen du", eta horrek "gure osasun-sistemaren kohesioa hausten du, langile-talde jakin baten baldintzak lehenetsiz, gainerako langileen aldean", eta horri 2007-2009 Lan Baldintzen Akordioa "zaharkituta" aplikatzen jarraituko zaiola. Maniobra horren bidez, gainera, medikuen kolektiboaren lan-baldintzak erabakitzeko baliozko solaskide bakar gisa finkatu nahi da Sindicato Medicoa, eta asmo horrek zuzenean urratzen du ordezkazaritza demokratikoaren printzipioa, osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko 55/2003 Legearen 79. artikulua urratuz.

Horregatik, sektoreko arduradunak "indarrean dagoen legedia hausten duen proposamenarekin atzera" egiteko exijitu du, bestela, UGT Mahai Sektorialetik altxatuko dela eta, ordezkagarritasunean oinarrituta negoziazioan legezko lekua duten gainerako indar sindikalekin batera, "gure osasun-sistemako langile guztien ekitatea, taldeen kohesioa eta duintasuna bermatzeko" aurrera eraman beharreko neurriak erabakiko ditu.

Ildo horretan, Perezek gogorarazi duenez, "langile guztiek erosteko ahalmena galdu dute eta akordioa indarrean egon den urte hauetan nekatu egin da, baina sailburuak talde baten baldintzez soilik kezkatzea erabaki du, bere eskaerak gainerakoenen gainetik jarritz". Horrela, jarraitu du, Osakidetzak mezu argia bidaltzen die fakultatiboak ez diren langileei: "medikuak bakarrik dira beren lan-baldintzak eguneratzeko eta hobetzeko bezain baliotsuak".

UGTk, beraz, "kategorikoki" errefusatu du segmentazio-estrategia hori, "aterki komuna hankaz gora jartzen duena" eta "agortutako plantillaren morala eta indarra txikitzen duena". Sindikatuaren ustez, Osasun Sailak "lehen mailako eta bigarren mailako baldintzak ezarri nahi ditu gure sistema publikoaren barruan". Ildo horretan, azpimarratu du Osakidetzaren eguneroko funtzionamendua ez dagoela kolektibo bakar baten mende; "langile guztien arteko elkarlanaren emaitza da: administrariak, zeladoreak, erizaintza, teknikariak, laguntzaileak, mantentze-lanak, garbiketa, sukaldea...

Azkenik, Perezek berretsi du "osasuna ahalegin kolektiboa" dela, eta horregatik 2007-2009ko akordioa eguneratzeko eskatu du, langile guztien lan-baldintzak hobetzeko, "bazterketarik gabe".